

HAUTAKETA ETA HORNIKETAKO PROZEDUREN EPEAK BERRABIARAZTEA / PROZEDUREI BERREKITEA (ALARMA-EGOERA)

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duenak (2020ko martxoaren 14ko BOE), epe prozesalak (bigarren xedapen gehigarria), epe administratiboak (hirugarren xedapen gehigarria) eta preskripzio- eta iraungitze-epeak (laugarren xedapen gehigarria) etetea xedatu zuen.

Maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren bidez (2020ko maiatzaren 23ko BOE), luzatu egin zen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoera (463/2020 Errege Dekretua, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko zena), eta honako hau xedatzen du:

8. artikulua. **Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren arabera etendako epe prozesalak.**

2020ko ekainaren 4tik aurrerako ondorioekin, amaitutzat emango da epe prozesalen etenaldia.

9. artikulua. **Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren arabera etendako epe administratiboak.**

2020ko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin, eten diren epe administratiboen zenbaketari berrekingo zaio, edo berriz hasiko da epea, alarma-egoera eta haren luzapenak indarrean dauden bitartean onartutako lege-mailako arauen batean hala aurreikusitakoa bada.

10. artikulua. **Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren arabera etendako eskubideak eta akzioak preskribatzeko eta iraungitzeko epeak.**

2020ko ekainaren 4tik aurrerako ondorioekin, amaitutzat emango da eskubideak eta akzioak preskribatzeko eta iraungitzeko epeen etenaldia.

COVID-19ari aurre egiteko ezohiko premiazko neurri osagarriak arlo sozial eta ekonomikoan hartzeari buruzko martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak honakoa xedatzen du:

Zortzigarren xedapen gehigarria. **Errekurtsoa jartzeko epea luzatzea.**

1. Administrazio-bidean errekurtsioak jartzeko epea, edo legeetan aurreikusitakoaren arabera horien ordezkari diren aurkaratze-, erreklamazio-, adiskidetze-, bitartekaritza- eta arbitraje-prozedurak eskatzeko epea, interesdunarentzat ondorio kaltegarriak edo kargak eragin ditzakeen edozein prozeduratan, alarma-egoeraren adierazpena amaitu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera zenbatuko da, alarma-egoera deklaratu aurretik errekurtsioaren edo aurkaratzearen xede den administrazio-jarduera jakinarazi zenetik igarotako denbora



Osakidetza

gorabehera. Aurrekoak ez du eragotziko errekurritu edo aurkaratzen den administrazio-egintzaren eraginkortasuna eta betearazgarritasuna.

Hautaketa- eta horniketa-prozesu bakoitzaren webgunean xehetasun handiagoz azalduko da maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren aurreko artikuluen aplikazio zehatza.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 29a.